

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

BETERRI-BURUNTZA MANKOMUNITATEA

Iragarkia

Mankomunitateko Gobernu Batzarrak 2023ko martxoaren 31ean eginiko bilkuran, Beterri Buruntza Mankomunitateko lan-poltsak eratzeko eta kudeatzeko irizpideak ezartzen dituen Erreglamenduaren hasierako onespena eman zion.

Aipatutako erabakiari jarraiki, espedientea jendaurrean jarri zen 30 eguneko epean, 2023ko apirilaren 18n Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eginiko argitalpenaren bidez. Aipatutako epean ez da alegazio, ez iradokizunik aurkeztu, beraz, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 49. artikuluan jasotakoaren arabera, araudia behin betikoz onartutzat jotzen da.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bidea amaitzen du. Nahi izanez gero, administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa aurkez daiteke Euskadiko Autonomia Erkidegoko Justiziako Auzitegi Nagusian, Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, erabaki hau argitaratu eta biharamunetik hasita.

Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoarekin bat aipatutako Erreglamenduaren testua argitaratzen da.

Hernani, 2023ko maiatzaren 31.—Lehendakaria. (4051)

Beterri Buruntza Mankomunitatean aldi baterako lan-poltsak kudeatzeko araudia.

ARRAZOIEN AZALPENEA

Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren urriaren 30eko 5/2015 Legearen 55. artikulua zehazten ditu enplegu publikoan sartzeko eta zerbitzu harremana lortzeko printzipio gidariak. Hala bada, adierazten du, berdintasun, meritu eta gaitasun printzipio konstituzionalak (Konstituzioaren 23.2 eta 103.3 artikulua) eta Legeak berak emaniko beste printzipio batzuk ziurtatzen dituzten prozeduren bidez aukeratu behar direla langile funtzionarioak eta langile laboralak, honako printzipio hauek hain zuzen ere:

- Deialdiak eta haien oinarriak argitara ematea.
- Gardentasuna.
- Aukeratze organoetako kideen inpartzialtasuna eta profesionaltasuna.
- Independentzia eta diskrezionaltasun teknikoa aukeratze organoen jardunean.
- Egokitasuna aukeratze prozesuen eta garatu beharreko lan edo egitekoen artean.
- Azkartasuna, aukeratze prozesuetan objektibitateari kalterik egin gabe.

Bitarteko funtzionarioak aukeratzeari dagokionean, arestian aipaturiko 5/2015 Lege horren 10. artikulua adierazten du pro-

MANCOMUNIDAD BETERRI-BURUNTZA

Anuncio

La Junta de Gobierno de la Mancomunidad en sesión ordinaria celebrada el 31 de marzo de 2023, aprobó, con carácter inicial, el Reglamento que regula la creación y gestión de las bolsas de trabajo para la prestación de servicios de carácter temporal que sean necesarios realizar por la Mancomunidad de Beterri Buruntza.

En virtud de dicho acuerdo, el expediente se sometió a información pública durante el plazo de 30 días, contados desde el día siguiente a la publicación del correspondiente anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa en fecha 18 de abril de 2023. En el citado plazo no se ha presentado ninguna alegación ni sugerencia, por lo tanto, de conformidad con el artículo 49 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo.

Contra el precedente acuerdo, que es definitivo y pone fin a la vía administrativa, se podrá interponer recurso Contencioso-Administrativo en el plazo de dos meses, ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, a partir del día siguiente al de la publicación del presente anuncio.

De conformidad con el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, se publica el texto íntegro de la modificación del Reglamento.

Hernani, a 31 de mayo de 2023.—La presidenta. (4051)

Reglamento para la gestión de las bolsas de trabajo temporal en la Mancomunidad de Beterri Buruntza.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El artículo 55 del Texto Refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público, aprobado por Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre (en adelante TRLEBEP), dispone los principios rectores que han de regir el acceso al empleo público y la adquisición de la relación de servicio. Así, establece que la selección del personal funcionario y laboral debe realizarse mediante procedimientos que garanticen los principios constitucionales de igualdad, mérito y capacidad (artículos 23.2 y 103.3 de la Constitución) y otra serie de principios consagrados por la propia Ley, como son:

- Publicidad de las convocatorias y de sus bases.
- Transparencia.
- Imparcialidad y profesionalidad de los miembros de los órganos de selección.
- Independencia y discrecionalidad técnica en la actuación de los órganos de selección.
- Adecuación entre el contenido de los procesos selectivos y las funciones o tareas a desarrollar.
- Agilidad, sin perjuicio de la objetividad en los procesos de selección.

En lo que se refiere a la selección de personal funcionario interino, el artículo 10 del TRLEBEP señala que aquella habrá

zedura azkarren bidez egin beharko dela aukeraketa hori, berdintasun, meritu, gaitasun eta publikotasun printzipioak errespetatuz beti ere.

Era berean, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 77. artikulua ezartzen du bitarteko funtzionarioen eta aldi baterako lan-kontratadun langileen hautaketa prozedura arinen bidez egingo dela, berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioak, publikitatea eta lehia askea bermatuta.

Bestalde, euskal herri-administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzen duen urriaren 13ko 190/2004 Dekretuaren 58. artikulua (bere aplikazio-eremuan toki-korporazioetako langileak ere hartzen dituenak) xedatzen du bitarteko funtzionarioen hautaketa administrazio bakoitzak bere araudian ezartzen dituen prozeduren bidez egingo dela.

Gainera, 2023. urtetik aurrera Mankomunitatea hainbat hautaketa-prozesu egiten ari da bere lanpostu-zerrendako lanpostu hutsak betetzeko, eta deitutako prozedurak arautzen dituzten oinarri guztietan lan-poltsa bat eratzea aurreikusi da.

Aurrekoa kontuan hartuta, ezinbestekotzat hartzen da lan-poltsen kudeaketa arautzea eta aldi baterako kontratazioak eta izendapenak kudeatzeko arau argi batzuk ezartzea, lan-poltsen kudeaketan beharrezkoa den arintasuna uztartuko dutenak, enplegu publikorako sarbidea arautzen duten printzipioak errespetatzeari kalterik egin gabe, eta lan-poltsak kontrolatzeko eta zainatzeko beharrezkoak diren gardentasun-mailak emango dituztenak.

Aurrekoaren arabera, honako xedapen hauek zehaztu dira

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea.

Araudi honen xedea da Beterri Buruntza Mankomunitateak egin beharreko aldi baterako zerbitzuak emateko lan-poltsak sortzeko eta kudeatzeko egin beharra arautzea, bai eta administrazio horretarako bitarteko funtzionarioen eta aldi baterako soldatako langileen hautapena ere.

2. artikulua. Aplikazio-eremua.

Araudi hau Beterri Buruntza Mankomunitatean beharrezkoak diren aldi baterako zerbitzuak emateko lan-poltsak sortzeko eta kudeatzeko aplikatuko da.

Araudi honetatik kanpo geratzen dira ordenantza hau indarrean sartzen denean euren arauketa propioa duten eta indarrean dauden lan-poltsak.

Halaber, araudi honetatik kanpo geratzen dira zerbitzu-eginkizun edo behin-behineko atxikipen bidez betetzen diren lanpostuak, baita gaikuntza nazionala duten funtzionarioentzat gordetako lanpostuak ere.

3. artikulua. Jarduteko printzipioak.

Lan-poltsak eratzean eta kudeatzean, printzipio hauek errespetatuko dira:

- Deialdien eta lan-poltsak osatzeko baldintzen publikitatea.
- Berdintasuna, enplegu publikora sartzeko baldintza orokorren eta lanpostuaren eskakizunen arabera.
- Merezimendu eta gaitasun irizpideak erabiltzea hautagaiak poltsetan sartzeko eta horietan duten ordena finkatzeko.
- Gardentasuna lan-poltsak sortzeko eta kudeatzeko prozesuaren kudeaketan.

de realizarse mediante procedimientos ágiles que respeten, en todo caso, los principios de igualdad, mérito, capacidad y publicidad.

A su vez, el artículo 77 de la Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco, establece que la selección de personal funcionario interino y del personal laboral temporal se llevará a cabo mediante procedimientos ágiles en los que se garanticen los principios de igualdad, mérito y capacidad, la publicidad y la libre concurrencia.

Por otro lado, el artículo 58 del Decreto 190/2004, de 13 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento de provisión de puestos de trabajo del personal funcionario de las Administraciones Públicas Vascas (cuyo ámbito de aplicación abarca también al personal de las Corporaciones Locales) dispone que la selección del personal funcionario interino se hará mediante los procedimientos que establezca cada Administración en su normativa sobre la materia.

Además, a partir de 2023 la Mancomunidad está poniendo en marcha diversos procesos selectivos para cubrir las plazas vacantes en su relación de puestos de trabajo, y en todas y cada una de las bases reguladoras de los procedimientos convocados, se ha previsto la constitución de unas bolsas de trabajo.

Teniendo en cuenta lo anterior, resulta necesario regular la gestión de las bolsas de trabajo, y establecer unas reglas claras de gestión de las distintas contrataciones y nombramientos temporales, que conjuguen la necesaria agilidad en la gestión de las mismas, sin menoscabo del respeto a los principios reguladores del acceso al empleo público, y otorguen los niveles de transparencia necesarios para su control y salvaguarda.

En virtud de lo anterior, se establecen las siguientes disposiciones.

DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1. Objeto.

Constituye el objeto del presente Reglamento regular la creación y gestión de las bolsas de trabajo para la prestación de servicios de carácter temporal que sean necesarios realizar por la Mancomunidad de Beterri Buruntza, así como la selección del funcionariado interino y del personal laboral temporal de dicha administración.

Artículo 2. Ámbito de aplicación.

El presente reglamento se aplicará a la creación y gestión de las bolsas de trabajo para la prestación de servicios de carácter temporal que sean necesarios en la Mancomunidad de Beterri Buruntza.

Quedan fuera de este reglamento aquellas bolsas de trabajo vigentes, que en el momento de entrada a vigor de la presente ordenanza tengan su propia regulación.

Asimismo, quedan fuera de este reglamento, aquellas plazas que se cubran mediante comisión de servicios o adscripción provisional, así como la provisional de plazas reservadas a funcionarias de habilitación nacional.

Artículo 3. Principios de actuación.

En la creación y gestión de las bolsas de trabajo se respetarán los siguientes principios:

- Publicidad de las convocatorias y de los requisitos para integrar las bolsas.
- Igualdad, de acuerdo con los requisitos generales de acceso al empleo público y los requisitos del puesto.
- Aplicación de los criterios de mérito y capacidad para integrar a las candidatas en las bolsas y establecer el orden obtenido en las mismas.
- Transparencia en la gestión del proceso de creación y gestión de las bolsas de trabajo.

IZENDAPENAK ETA KONTRATAZIOAK EGITERAKOAN JARDUTEKO MODUA

4. artikulua. *Astigarragako Mankomunitatearen lan-poltsak.*

Beterri Buruntza Mankomunitateak bitarteko funtzionario bat izendatu edo aldi baterako lan-kontratu bat egin beharra duenean, Mankomunitateak dagokion lanposturako indarrean dituen lan-poltsetan dauden pertsonen artean hautatuko da hautagaia; lehiaketa-oposizio prozeduretan oinarritutako hautaketa-prozesuen bidez edo lehiaketa bidez soilik eraturakoak, betiere funtzio publikoaren arloko legeriak hautaketa-prozesu horiek egiteko eskatzen dituen baldintzak betez eratu badira.

5. artikulua. *Kanpoko lan-poltsak.*

Izendapena edo kontratazioa ezin bada egin Mankomunitateak berak dituen lan-poltsekin, beste herri administrazio batzuek eraturako lan-poltsetaraino ahal izango du Mankomunitateak, betiere funtzio publikoaren arloko legeriak hautaketa-prozesu horiek egiteko eskatzen dituen baldintzak betez eratu badira.

Kasu horretan, ondorengo lehentasun-zerrenda aplikatuko da:

1. multzoa: Mankomunitate hau osatzen duten Gipuzkoako toki administrazioak.

2. multzoa: Gipuzkoako gainontzeko toki administrazioak eta IVAP/HAEE;

Poltsak lagatzeko eskabidea 1. multzoko administrazio eta erakunde guztiei bidali beharko zaie aldi berean.

Sei egun balioduneko epean 1. multzoa osatzen duten administrazioek eta erakundeek ez badiote eskabideari erantzun, 2. multzoko administrazioei egingo zaie eskaera, baldin badakigu unean unean behar den kategoriako Lan-poltsa dutela, horretarako beharrezko administrazio-gestioak eginda.

Lagatako Poltsak jasotzen diren ordenan erabiliko dira.

6. artikulua. *Enplegu-zerbitzu publikoak.*

Izendapena edo kontratazioa ezin izan bada egin aurreko artikuluetan adierazitako poltsekin eta, eskudun organoaren iritziz, ez badago beste lan-poltsa bat osatzeko behar adina denbora material edo horretarako gaitasun teknikorik ez badago, enplegu-zerbitzu publikoetara (Lanbide eta SEPE) jo ahal izango da, 10. artikuluan arautzen den ez-ohiko Deialdiaren bitartez.

LAN POLTSAK

7. artikulua. *Lan-poltsak eratzea.*

Beterri Buruntza Mankomunitateko lanpostuetarako aldi baterako langileak hautatzeko, Mankomunitateak osatu dituen lan-poltsak erabiliko dira, lehiaketa-oposizio prozeduretan oinarritutako hautaketa-prozesuen bidez edo lehiaketa bidez soilik, betiere hautaketa-prozesu horiek funtzio publikoaren arloko legeriak eskatzen dituen baldintzak betez eratu badira.

Beraz, Beterri Buruntzako lan-poltsak bi izaera izango dituzte: oposizio-lehiaketa bidez eraturakoak eta lehiaketa-prozeduren bidez eraturakoak.

Beharrezkoa izango da hautaketa-prozesuan jarraitutako prozedura parte hartu nahi den lan-poltsaren izaerarekin bat etortzea. Hau da, lehiaketa-oposizio prozeduretan oinarritutako hautaketa-prozesuek (EPEak barne) prozedura beraren bidez eratu-

FORMA DE ACTUAR PARA LLEVAR A CABO NOMBRAMIENTOS Y CONTRATACIONES

Artículo 4. *Bolsas de trabajo de la Mancomunidad de Beterri Buruntza.*

Quando la Mancomunidad de Beterri Buruntza tenga la necesidad de realizar el nombramiento de funcionaria interina o realizar un contrato laboral temporal, la elección de la persona candidata se llevará a cabo entre las personas que integren las bolsas de trabajo vigentes que tenga la Mancomunidad para dicha plaza, constituidos a través de procesos selectivos basados en procedimientos de concurso-oposición o exclusivamente de concurso, siempre que las mismas se hayan constituido cumpliendo los requisitos que la legislación en materia de función pública exige para llevar a cabo dichos procesos selectivos.

Artículo 5. *Bolsas externas.*

En el caso que no pueda llevarse a cabo el nombramiento o la contratación con bolsas de trabajo de la propia Mancomunidad, se podrá recurrir a bolsas de otras administraciones públicas, que se hayan constituido mediante cualquier proceso selectivo siempre que las mismas se hayan constituido cumpliendo los requisitos que la legislación en materia de función pública exige para llevar a cabo dichos procesos selectivos.

En ese caso, se aplicará el siguiente listado de preferencias:

Bloque 1: Administraciones locales de Gipuzkoa que sean miembros o formen parte de esta Mancomunidad.

Bloque 2: Las demás administraciones locales de Gipuzkoa e IVAP.

La solicitud de cesión de Bolsa se enviará, simultáneamente a todas las administraciones y entidades del bloque 1.

Si en el plazo de 6 días hábiles las Administraciones y entidades integrantes del bloque 1 no han dado respuesta a la petición, se hará la petición a las Administraciones del Bloque 2 de la que se tenga constancia de la existencia de Bolsa de Trabajo de la categoría que se necesite en cada momento, realizando para ello las gestiones administrativas necesarias.

Las Bolsas cedidas se usarán según el orden en que se vayan recibiendo.

Artículo 6. *Servicios públicos de empleo.*

En el caso que no pueda llevarse a cabo el nombramiento o la contratación con bolsas señaladas en los artículos precedentes, y de que, a criterio del órgano competente, no exista tiempo material suficiente o se carezca de la capacidad técnica para conformar otra nueva bolsa de trabajo, se podrá acudir, a los servicios públicos de empleo (Lanbide y SEPE), mediante la Convocatoria extraordinaria regulada en el artículo 10.

DE LAS BOLSAS DE TRABAJO

Artículo 7. *Constitución de bolsas de trabajo.*

Para la selección del personal temporal para los diferentes puestos de la Mancomunidad Beterri Buruntza se utilizarán las bolsas de trabajo que haya constituido la Mancomunidad a través de procesos selectivos basados en procedimientos de concurso-oposición o exclusivamente de concurso, siempre que las mismas se hayan constituido cumpliendo los requisitos que la legislación en materia de función pública exige para llevar a cabo dichos procesos selectivos.

Por tanto las bolsas de trabajo de Beterri Buruntza tendrán dos naturalezas diferentes: las constituidas mediante procedimientos de concurso-oposición y las constituidas mediante procedimientos de concurso.

Tendrá que existir la necesaria correspondencia entre el procedimiento seguido en el proceso de selección –que, en su caso, permita participar en una bolsa de trabajo– con la naturaleza de la bolsa de trabajo donde se quiera participar. Es decir,

tako lan-poltsetan soilik parte hartzeko eskubidea emango dute. Beraz, lehiaketa-fasean soilik oinarritutako prozedurak jarraitu dituzten hautaketa-prozesuek eskubidea emango dute lehiaketa-fasearen bidez eraturako lan-poltsetan soilik parte hartzeko.

8. artikulua. Indarraldia.

Hutsik dauden lanpostuak betetzeko hautapen-prozesuetatik abiatuta sortzen diren lan-poltsak deialdiaren oinarrietan adierazten den epean egongo dira indarrean; eta oinarrietan ez er adierazten ez bada, 15 urtez edo aurrekoa indargabetzen duen beste poltsa bat eratzen den arte.

Nolanahi ere, lan-poltsa bat indargabetzea erabaki dezake Mankomunitateak –Lehendakaritzaren ebazpen bidez–, lanpostuaren edukian aldaketaren bat baldin badago, poltsa eratzeke deialdiaren oinarri izan ziren egoerak aldatzen dituen, eta poltsa eraginik eta eraginkortasunik gabea baldin bada, hura osatzen duten pertsonak «ez libre» eta «aurkietan» egoeran daudelako.

9. artikulua. Lan-poltsak berriak sortzea.

Mankomunitateak hautaketa-prozesu berriak egin ahal izango ditu, lan-poltsa berriak sortzeko helburu bakarrarekin, baldin eta lanposturik ez badu, edo, halakorik izanda ere, hautagairik ez badago «erabilgarri».

Lan-poltsa berria eratu ondoren, bateratu egingo da eta, hala badagokio, lanpostu bererako lehendik dagoen lan-poltsarekin integratuko da, izaera berarekin. Beraz, oposizio-lehiaketaren prozeduraren bidez eraturako lan-poltsa berria prozedura beraren bidez sortu zen aurreko lan-poltsan sartuko da. Kasu horretan, poltsa berriko kideak ordenatu ondoren, lehenengo izangaia aurreko poltsako azken kidearen atzetik jarriko da, eta horrela hurrenez hurren.

Lan-eskaintza publikoei (EPE) buruzko 11. artikulua azken paragrafoan jasotako salbuespena kontuan hartu beharko da.

10. artikulua. Ez-ohiko deialdia.

Mankomunitateak ezin badu izendapena lan-poltsak –be-reak zein kanpokoak– erabilita egin, berariazko prozesu bat egin ahal izango du, aldez aurretik Lanbide enplegu-zerbitzu publikoari edo SEPEri eskabidea eginda garatuko dena.

Kasu horretan, dagokion enplegu-zerbitzu publikoak proposatzen dituen pertsonak –lanposturako exijitutako oinarritzko baldintzak bete beharko dituzte– aurretiazko prozedura laburtu bidez hautatuko dira; prozedura horrek aipatutako berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioak bete beharko ditu.

Deialdi horrek ez du berarekin ekarriko deialdiaren ez-ohikotasunetik haratago doan zerranda berririk osatzea, eta ez da lehendik dagoen ezein poltsaren parte izango. Nolanahi ere, sei hilabete baino gutxiagoko epean lanpostu bererako beste izendapenen bat egin beharra baldin badago, eta izendapen hori ezin bada egin Mankomunitatearen beraren lan-poltsen edo kanpoko edo beste administrazio batzuen lan-poltsen bitartez, eta deialdiaren oinarri izan zen ez-ohikotasun egoerak jarraitzen badu, Mankomunitateak lan-poltsa hori erabili ahal izango du.

11. artikulua. Lan-poltsen lehentasun-ordena.

Lanpostu bererako dauden lan-poltsen lehentasun-ordena zehazteko, lan-poltsa bakoitzaren kontsiderazioa edo hierarkia hartu beharko da kontuan.

Kontsiderazio edo hierarkia horren arabera, lehiaketa-oposizio bidez sortutako lan-poltsak gailenduko dira lehiaketa-prozedura bidez sortutakoen gainetik.

los procesos selectivos basados en procedimientos de concurso-oposición (OPEs incluidos) darán derecho a participar únicamente en bolsas de trabajo constituidos por el mismo procedimiento. Por tanto, los procesos selectivos que hayan seguido procedimientos basados únicamente en la fase de concurso, darán derecho a participar exclusivamente en bolsas de trabajo constituidas mediante la fase de concurso.

Artículo 8. Vigencia.

Las bolsas de trabajo que se crean a partir de procesos selectivos para cubrir plazas vacantes, estarán vigentes durante el plazo que se señale en las bases de la convocatoria; y de no señalarse nada, durante 15 años o hasta la constitución de otra bolsa que derogue la anterior.

Sin perjuicio de lo anterior, la Mancomunidad podrá acordar –por resolución del/la Presidente/a– dejar sin vigencia una bolsa de trabajo cuando exista una alteración en el contenido del puesto, que modifique los supuestos que sirvieron de base a la convocatoria de la que derive la bolsa; así como la bolsa resulte inoperante o ineficaz porque las personas que la integran están en situación de «no disponible» e «ilocalizable».

Artículo 9. Creación de nuevas bolsas de trabajo.

La Mancomunidad podrá realizar nuevos procesos selectivos con la única finalidad de crear nuevas bolsas de trabajo para aquellas plazas en las que no disponga de una, o, aun teniéndola, no haya candidatas en la situación de «disponible».

Una vez constituida la nueva bolsa de trabajo, ésta se fusionará y se integrará, en su caso, con la bolsa de trabajo ya existente para el mismo puesto y que tenga la misma naturaleza. Por tanto, la nueva bolsa de trabajo constituida mediante el procedimiento de concurso-oposición se integrará con la bolsa de trabajo anterior que fue creada mediante el mismo procedimiento (se aplicará la misma sistemática para los procedimientos de concurso). En este caso, tras ordenarse las personas integrantes de la nueva bolsa, la primera aspirante se colocará por detrás de la última integrante de la bolsa anterior; y así sucesivamente.

Habrá que atender la salvedad recogida en el último párrafo del artículo 11, relativo a las Ofertas Públicas de Empleo (OPE).

Artículo 10. Convocatoria extraordinaria.

Si la Mancomunidad no puede llevar a cabo el nombramiento utilizando bolsas de trabajo –tanto propias como externas–, se podrá realizar un proceso específico que se desarrollará previa solicitud al servicio público de empleo Lanbide o al SEPE.

En este caso, las personas propuestas por el servicio público de empleo correspondiente, que deberán cumplir los requisitos básicos exigidos para el desempeño del puesto, serán seleccionadas previo procedimiento sumario, congruente con los citados principios de igualdad, mérito y capacidad.

Esta convocatoria no supondrá formar nueva lista fuera de la excepcionalidad para la que fue convocada, ni formará parte de ninguna de las bolsas existentes. Ello bien, podrá ser utilizada por la Mancomunidad, si en el plazo inferior a 6 meses sea necesario realizar un nuevo nombramiento para la misma plaza o puesto, la misma no pueda proveerse mediante Bolsas de Trabajo de la propia Mancomunidad o bolsas externas o de otras administraciones, y persista la excepcionalidad para la que fue convocada.

Artículo 11. Orden de prelación de las bolsas de trabajo.

Para determinar el orden de prelación de las diferentes bolsas de trabajo existentes para un mismo puesto, habrá que atender a la consideración o jerarquía de cada bolsa.

En base a dicha consideración o jerarquía, las bolsas de trabajo creadas mediante procedimiento de concurso-oposición prevalecerán sobre las creadas mediante el procedimiento de concurso.

Aurrekoa alde batera utzi gabe, Lan Eskaintza Publiko (EPE) batetik eratorritako lan-poltsak lehenetsia izango dute antzeko beste hautaketa-prozesu batzuek sortutako lan-poltsen gainetik, nahiz eta EPETik eratorritako lan-poltsa gerora sortu. Kasu horretan, EPETik eratorritako lan-poltsako azken parte-hartzailea lanpostu bererako dagoen lan-poltsako lehen parte-hartzailearen aurretik jarriko da.

12. artikulua. Hautagaien lanpostu-ordena.

Lan-poltsa mota bakoitzaren barruan (oposizio-lehiaketa bidez eratutakoak edo lehiaketa bidez eratutakoak), hautagaien lehenetsia-hurrenkera dagokion lan-poltsa sortzeko hautaketa-prozesuetan lortu den puntuazioaren arabera izango da (handienetik txikienera).

Aurrekoa alde batera utzi gabe, bete behar den lanpostuak 4. hizkuntz-eskakizuna eskatzen baldin badu, lan-poltsak osatzen dituzten pertsonak 3. hizkuntz-eskakizuna izan dezakete, nahiz eta lehenetsia izango duten, eta, beraz, lehenago deituko zaien lanerako, 4. hizkuntz-eskakizuna dutenei.

Desgaitasuna duten pertsonak kontratatzeko legez administrazio publikoetara erreserbatutako kuota iritsi arte, edo negozioan ezarritakora iritsi arte, azken hori handiagoa balitz, desgaitasuna duten langileentzako txanda mugatutik datozen zerrendak badaude, 3 kontratutik edo izendapenetik 1 langile horien alde egingo da.

Muga berberarekin, desgaitasuna duten langileentzako txanda mugatutik datozen zerrendarik ez badago, langile horien aldeko kontratu- edo izendapen-kopuru bera egiteko ahalegina egingo da, betiere horrekin administrazio publikoetako langileak hautatzeko prozedurak gidatu behar dituzten printzipioak urratzen ez badira. Langile horiek % 33ko desgaitasuna edo handiagokoa aitortua izan beharko dute (Administrazio organo eskudunak aitortua) eta ezarritako lehenetsia-ordenaren arabera erabili beharreko zerrendan sartuta egon beharko dute.

13. artikulua. Lan-poltsen datuei eta egoerari buruzko informazioa.

Lan-poltsa osatzen duten pertsonak edozein unetan kontsultatu ahal izango dute poltsan haiei buruz jasotzen den informazioa, baita lan-poltsaren beraren egoerari buruzkoa ere.

Idatziz egin beharko da informazio-eskaera, Idazkaritza Departamentura zuzendutako eskari bidez.

Eskariak Beterri Buruntza Mankomunitateetxean aurkeztu beharko dira, edo Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legearen 16. artikuluan ezarritako moduan.

Beterri Buruntza Mankomunitateetxean, paperean aurkeztu ahal izango dira eskaerak erregistro orokorrean, edo telematikoki, Beterri Buruntza Mankomunitatearen Erregistro Telematikoa-ren bitartez, bere web gunean aurkitu daitekeena: www.beterri-buruntza.eus.

LAN-POLTSEN KUDEAKETA

14. artikulua. Hautagaiak egon daitezkeen egoerak.

Hautagaiak honako egoera hauetakoren batean egon daitezke:

- Libre.
- Jardunean edo lanean.
- Ez libre.
- Aurkiazina.
- Behin betiko baja.

Sin perjuicio de lo anterior, las bolsas de trabajo que deriven de una Oferta Pública de Empleo (OPE) prevalecerán sobre las bolsas de trabajo de la misma naturaleza ya creadas con anterioridad mediante otros procesos selectivos análogos. En este caso, la última persona participante de la bolsa que derive de la OPE se colocará por delante de la primera participante de la bolsa de trabajo ya existente para el mismo puesto.

Artículo 12. Orden de prelación de las personas candidatas.

Dentro de cada tipo de bolsa de trabajo (las constituidas mediante concurso-oposición o las constituidas mediante concurso), el orden de prelación de las personas candidatas vendrá determinada por la puntuación que se haya obtenido (de mayor a menor) en los procesos selectivos de las cuales deriven las bolsas de trabajo correspondientes.

Sin perjuicio de lo anterior, en el caso de que el puesto de trabajo a cubrir requiera el perfil lingüístico 4, las personas integrantes de las bolsas de trabajo podrán estar en posesión del perfil lingüístico 3, aunque tendrán preferencia, por lo que se les llamará antes para trabajar, a las personas con perfil lingüístico 4.

Hasta que se alcance la cuota reservada por Ley a las Administraciones Públicas para la contratación de personas con discapacidad o la establecida en negociación si ésta fuera superior, en caso de que existan listas provenientes del turno restringido para personal con discapacidad, 1 de cada 3 contratos o nombramientos se efectuará a favor de este personal.

Con el mismo límite, en caso de no existir listas provenientes del turno restringido para personal con discapacidad, se procurará realizar igual número de contratos o nombramientos a favor de este personal que deberá tener reconocida la condición de tal, con discapacidad de grado igual o superior al 33 % por el órgano competente de la Administración y estar integrada en la lista que corresponda utilizar de acuerdo al orden de prelación establecido, siempre que con ello no se vulneren los principios que deben regir los procedimientos de selección del personal de las administraciones públicas».

Artículo 13. Información sobre los datos y el estado de las bolsas de trabajo.

Las personas integrantes de la bolsa de trabajo, podrán en cualquier momento consultar la información que sobre ellas figure en la misma; así como sobre la situación de la propia bolsa.

La solicitud de información deberá realizarse por escrito mediante instancia dirigida al Departamento de Secretaría.

La presentación de instancias se hará en la Mancomunidad de Beterri Buruntza, o en la forma establecida en el artículo 16 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

En la Mancomunidad de Beterri Buruntza las solicitudes se podrán presentar en papel, en el registro general, o telemáticamente, mediante el Registro Telemático de la Mancomunidad de Beterri Buruntza disponible en su página web: www.beterri-buruntza.eus.

GESTIÓN DE LAS BOLSAS DE TRABAJO

Artículo 14. Situaciones de las personas candidatas.

Las personas candidatas podrán estar en las siguientes situaciones:

- Disponible.
- En activo o trabajando.
- No disponible.
- llocalizable.
- Baja definitiva.

15. artikulua. Libre egoera.

Libre egoeran egongo da eta, ondorioz, lan-eskaintzak jaso ahal izango ditu, ondorengo egoeretakoren batean ez dagoen eta lan-poltsan dagoen pertsonak: Jardunean edo lanean, ez libre, aurkiezin, eta behin betiko bajaran.

16. artikulua. Jardunean edo lanean.

«Jardunean edo lanean» egoeran egongo dira Beterri Buruntza Mankomunitatean lan egiten dutenak.

Egoera horretan dauden bitartean, ondorengoekin lotutako Beterri Buruntza Mankomunitatearen lan-eskaintzak bakarrik jaso ahal izango dituzte:

a. Beterri Buruntza Mankomunitatearen beste lan-poltsa batzuk, administrazio horrekiko lan-egoera sortu zuena ez direnak.

b. Aurretiatzko kontratu edo izendapenen ondoko ondoko jarraipenezko kontratuak edo izendapenak, Araudi honen 28. artikuluan adierazten diren kasuetakoren baten barruan sartzen direnean.

c. Beterri Buruntza Mankomunitatearentzako lan egiteko % 100ekoa baino lanaldi murriztagoko kontratuak, baldin eta bien arteko baturak ez badu portzentaje hori gainditzen eta lan-postu bietan jardutea bateragarria baldin bada.

Behin dagokion kontratuaren/izendapenaren indarraldia amaitzen denean, berriro «libre» egoerara igaroko dira «jardunean edo lanean» egoeran zeuden langileak, jatorrizko zerrendan hasieran zuten tokiari eutsiz.

17. artikulua. Aurkiezina.

Egoera horretan alta emango zaie ofizioz, helbide elektronikoa edo telefono-zenbakia aldatu izanaren berri eman ez dutelako, lan-eskaintza egin ezin zaien Lan-poltsa bateko izangaiei.

Ondore horretarako, aurkiezintzat joko da posta elektronikoa bidez eskaintza egin eta mezuari erantzuten ez dion pertsona; edo, eskaintza telefonoz egiten denean, eta izangaia aurkitu ezin denean, elkarren segidako bi lanegun ezberdinetan lau saiakera egiten diren.

Helbide elektronikoa edo telefono-zenbakia aldatu izanaren berri ez emategatik «aurkiezin» egoeran alta eman zaien eta egoera horretan hiru hilabete baino gehiago dauden izangaia dagokion Lan-poltsaren zerrendaren amaieran jarriko dira, eta «aurkiezin» egoeran jarraituko dute haiek aurkitzea ahalbidetuko duten datu berriak ematen dituzten arte. Hala ere, datuon berri emateak «libre» egoerara aldatzea bakarrik ekarriko die, ez dute berreskuratuko dagokion Lan-poltsaren barruan zuten hasierako lehenetsun-ordena.

18. artikulua. «Ez libre» edo ez-erabilgarriaren egoera.

1) Lan-poltsetan lanerako prest ez dauden langileek ez dute lan-eskaintzarik jasoko egoera horretan dauden bitartean.

Egoera horretara igaroko dira:

a) Zerbitzuak ematen aritzea, sektore publikoan edo pribatuan. Izendapenaren, lan-kontratuaren edo lizentzia fiskala duten autonomoen altaren eta Gizarte Segurantzako altaren bidez egiaztatuko da. Lanerako prest egoerara igarotzeko, lan-kontratu utzi edo amaitu dela egiaztatu beharko da.

b) Prestasun egoeran egonik, Aldi baterako ezintasun-egoeran daudenak edo azterketa medikoan gai ez direnak eta behin betiko bajaran geratzea ez dagokienak. Baja medikoaren edo azterketa medikoaren ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da.

Artículo 15. Situación de disponible.

Se encuentra en situación de disponible, y en consecuencia, podrá recibir ofertas de trabajo, la persona integrante de las bolsas de trabajo que no se encuentre en las siguientes situaciones: en activo o trabajando, no disponible, ilocalizable; y baja definitiva.

Artículo 16. En activo o trabajando.

Se encuentran en situación de «en activo o trabajando» aquellas que prestan servicio en la Mancomunidad de Beterri Buruntza.

Mientras se encuentre en esta situación, únicamente podrá recibir ofertas de trabajo de la Mancomunidad de Beterri Buruntza relacionadas con:

a. Otras Bolsas de empleo de la Mancomunidad de Beterri Buruntza, distintas a la que dio origen a su situación de ocupación con esa administración.

b. Contratos o nombramientos que tengan inmediata continuidad con el preexistente, cuando entren dentro de algunos de los supuestos señalados en el artículo 28 de este Reglamento.

c. Contratos para la prestación de servicios de la Mancomunidad de Beterri Buruntza con dedicaciones inferiores al 100 % de la jornada, siempre que la suma de los dos no supere ese porcentaje, y el desempeño de ambos puestos sea compatible.

Finalizada la vigencia del correspondiente contrato /nombramiento las personas «en activo o «trabajando» pasarán nuevamente a la situación de «disponible», manteniendo su inicial posición en la lista de origen.

Artículo 17. Illocalizable.

Se procederá, de oficio, a dar de alta en esta situación a aquellas candidatas integrantes de una Bolsa de trabajo que, por no haber comunicado el cambio de correo electrónico o n.º de teléfono, imposibilite realizar la oferta de trabajo.

A este efecto se considerará illocalizable a aquella persona que se le haga una oferta vía correo electrónico y no responda a la misma; o cuando se haga la oferta vía teléfono, y no sea posible localizarla, tras cuatro intentos realizados en dos días laborales diferentes y consecutivos.

Aquellas candidatas que, por no haber comunicado el cambio de correo electrónico, o teléfono, sean dados de alta en la situación de «ilocalizables», y permanezcan más de 3 meses en dicha situación, serán relegados al final de la Bolsa de trabajo correspondiente, y mantendrán la situación de «ilocalizable» en tanto en cuanto no comuniquen nuevos datos que posibiliten su localización. No obstante, la comunicación de dichos datos únicamente supondrá su pase a la situación de «disponible», no recuperando con ello el orden de prelación originario dentro la correspondiente Bolsa de trabajo.

Artículo 18. Situación de no disponible.

1) Las personas integrantes de las bolsas de trabajo en situación de no disponible no recibirán ofertas de trabajo durante el tiempo que permanezcan en esta situación.

Pasarán a esta situación quienes:

a) Estén prestando servicios, en el sector público o privado. Se acreditará mediante el nombramiento, contrato de trabajo o alta en autónomos con licencia fiscal, y alta en seguridad social. Para el pase a la situación de disponible se deberá acreditar el cese o la finalización del contrato de trabajo.

b) Estando en situación de disponible, se encuentren en situación de incapacidad temporal o no hayan sido consideradas aptas en el reconocimiento médico y no les corresponda quedar en situación de baja definitiva. Se acreditará mediante la baja médica o certificado del reconocimiento médico.

c) Amatasun- eta aitatasun-arrazoiengatik, Gizarte Segurantzak aitortzen duen denbora. Gizarte Segurantzaren ebazpen bidez egiaztatuko da. Lanerako prest egoerara igarotzeko, Gizarte Segurantzaren ebazpena egiaztatu beharko da, aitortutako aldia amaitu dela xedatzen duena.

d) Adopzio edo harrera kasuetan daudenak, adopzio arrakoa zein iraunkorra edo sinplea izan, betiere harrera soilak gutxienez urtebeteko iraupena badu eta adingabearen adina edozein dela ere. Gizarte Segurantzak onartutako aldiak ez dira libre egongo. Gizarte Segurantzaren ebazpen bidez egiaztatuko da. Lanerako prest egoerara igarotzeko, Gizarte Segurantzaren ebazpena egiaztatu beharko da, aitortutako aldia amaitu dela xedatzen duena. Nazioarteko adopzio edo harrera kasuetan gurasoek adoptatuaren jatorrizko herrialdera alde aurretik joan behar badute, ez libre egoerara pasatzeko eskatu ahal izango da, joan-etorri hori egitera behartzen duen izapidetze-agentziaren ziurtagiria egiaztatuz, daukan denborarako.

